

KONTROL MOZIOA

MIRAMAR PARKEAREN ITXIERA PARTZIALARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko urtarrileko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Miramar parkearen itxiera partziala polemika iturri izan da Gabonetan. Ez da lehen aldia espazio hau herritarren erabilera libreria ixten dela, eta hala erantzun zigun urtarrileko batzordeetan zinegotzi ordezkariak. Kontzertuak, askotariko jaialdiak edo baita ezkontzak ere, itxiera hauen arrazoietakoa batzuk dira. Oraingo honetan, Donostiako Udalak eta Donostia Sustapenak, Gabonetako Kanpainaren baitan antolatutako "Miramar Magikoa" ikuskizuna izan da motiboa. Abenduaren 4tik urtarrilaren bosta arte, arratsaldeko seietatik aurrera parkera sartu ahal izateko bost eta zortzi euro ordaindu behar izan dira. Era berean, ez da lehen aldia Udalak espazio publiko baten erabilera komertziala egiten duena, horren adibide ditugu estropadak.

Kasu honetan, aldea ez dago itxiera partzialak iraun duen denboran bakarrik, baizik eta espazioaren berezko ezaugarrietan: Erdialdea eta Antiguu auzoen arteko igarobide garrantzitsua da, eta, aldi berean, egunerokoan erabilera herritar handia duena. Bada, gainera, parkeko gune batzuk itxita egon dira egun osoan, eta belardietan egotea ere debekatu dute.

“Donostiarron Donostia” da gure hirian azken hilabetean gehien entzun den leloa. Donostiarron Donostia. Baina ez donostiar guztiona, antza. Miramar parkearen itxiera da ebidentzia. Izan ere, espazio publikoaren erabilera komertziala baztertzailea da, diskriminatu egiten du, herritar guztiak ezin baitute erabili.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala herritarren joan-etorri librea eta erabilera oztopatu dezakeen espazio publiko irekien komertzializaziorik sustatu.

Donostian, 2026ko urtarrilaren 23an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia